



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza. Tfona.: 313030 IGELDO

BUELTAN GARA

Batzuentzat abuztua opor garaia da; besteentzat abuztua hilabeterik gogorrena da lanean, horrexegatik hain zuzen; eta beste batzuentzat abuztua lanerako beste edozein hilabete bezalakoa da. Guztientzat, ordea, nahi ala nahi ez, abuztua hilabete berezia da: autobusak ibilbide laburragoa egiten du; plazan alemaneraz hitz egiten entzun daiteke; Donostiako kaleak kolapsatu egiten dira; eta administraziotik paperen bat espero duenak badaki ezingo duela ezer jaso irailera arte. I-GELDOko orri informatibo hau ere inoiz baino GELDOago ibili da; aurreko bien sprinta eta gero martxa berriari ekiteko prest gaituzue berriz, eta hementxe doakizue Herri Kontseiluak azken bi bileretan esku artean izan zituen gaiak.

HIRIGINTZA

Etxeak eraikitzeko baimenen gainean dagoen auzia honela dago:

Patxi Aranbururen sententzia errekurritu egin da, nabarmen geratu da eta, udaletxeak akatsa egin zuena. Bestalde, Patxirekin berarekin

eta Udaletxekoekin bilera bat egin zen, eta bertan akordio bat proposatu zitzaien: udaletxeak onartu egin beharko du hanka sartzea; zuzendu egin beharko ditu zuzendu daitezkeenak; horrelakorik berriro gerta ez dadin neurriak hartuko ditu; trukean errekurtsioa kenduko du Igeldok. Akordioa hirigintzako zuzendari den Atxukarro jaunari hel araziko dio Iñigo Liza abokatuak. Gainera, auzi honen jakinaren gainean izan dadin, Foru Aldundiko Nekazaritza saileko Losa jaunari idatzi bat emango dio Juancarrek.

Elena Perezen auziari buruz dagokionez, atara den sententzia Igeldoren aldekoa izan da. Horrek esan nahi du etxea ilegaltzat hartu dutela. Elena Perezek sententzia errekurritu dezake. Eman beharreko urratsak haren mugimenduen zain geratzen dira.

Airean geratzen dira oraingoz Valentin Angiozarren eta Jose Lazkanoren sententziak.

Bukatzeko, Akelarreko lanak egiteko azken baimena emanda dagoela jakin arazten da.

ESKOLA ZAHARRA

Eskola berriarekin batera eskola zaharrean zer egin pentsatu behar da. Hainbat ideia dago, baina Herri Kontseiluak irizpide hauek jarraitu behar direla irizten du:

- Gelen banaketa egitea ongi ikusten du, baina gelak funtzio bat baino gehiago izan dezaten garrantzitsua dela pentsatzen du. Erabilera anitzeko gelen alde dago, beraz.
- Mus txapelketarentzat eta festetako tabernarentzat beste kokapen desberdin bat nahi dute (gogoratu, Kultur Etxean egiten dira orain arte). Soziedadea, arkupeak, eskolako jangela, eliz atzeko lokala... hainbat aipatu dira, nahiz eta jakin badakiten zaila dena hori aldatzea.
- Etxe "berri" hauen kudeaketak gastuak dakartza berarekin eta horiei aurre egiteko udaletxean eskaera egitea proposatzen dute. Ente Local Menor edota segregazioa lortzen den bitartean diru-iturri izan daitekeela pentsatzen dute.

Itsas Aurren dagoen jubilatuen gela Eskola Zaharrera pasatzea proposatzen dute; eskailerak ez lirake haientzat arazo izango, eta hutsik utziko luketen gela liburutegi ala bulego gisa erabiliko litzateke.

Gela nagusiak erabilera anitz izango lituzke: hitzaldi-emanaldi-erakusketa-antzoki... gela gisa. Atzeko aldean duen gimnasioa ariketa-leku izaten jarraituko luke, baina edozein herritarrek

erabiltzeko aukera izango luke (jubilatuen gela berriari buruz beherago hitz egiten da).

Beheko solairuan egun dagoen soziedadea geldituko litzateke, baina taberna-funtzioa bete lezakeen aztertu beharko litzatekeela pentsatzen dute. Diru-iturri izateaz gain soziedadeari etekina aterako litzaioke horrela. Eta gogoratu afaririk, bazkaririk ala bestelakorik egin nahi baduzue bertan aukera duzuela. Kultur Etxeko telefono-zenbakian Jabierrentzat mezua utzi besterik ez duzue.

Eskola Zaharrak badu goiko pisuan etxebizitza bat. Etxebizitza izaten jarraitzea proposatzen dute. Zehazteke geratzen da, ordea, norentzako etxebizitza izango den. Hasierako proposamena da gazteren batentzat izatea, haren lehen etxebizitza gisa erabili dezan 2 edo 3 urtez, beste bat aurkitu arte. Bertan legokeen gazteak alokairua ordaindu beharko luke, dirutan ala lan truke (eskola eta Itsas Aurre garbituz, adibidez).

Eskola Zaharrean, lehen aipatu bezala, 3. adinekoen egoitza legoke. Eguneko zentroa, jubilatuen egoitza, oinarrizko botikina (errezetak, tentsioaren eta diabetearen kontrola...). Lehen solairuan leudekeenez ez lituzkete eskailerak igo behar.

Eraikuntza berdinean beste honako hauek egotea ere ongi legokeela pentsatzen dute: 0-3 haurrentzako haurtzaindegia; pilotakoek, soka tirakoek edo besteren batek materiala uzteko lekua. Jangela taberna gisa egokitzeko aukera aztertzen ari dira.

KULTUR ETXEAREN ANTOLAKETA

Aurreko puntuari guztiz lotuta dago gai hau. Hala ere, ez dugu oraingoan ezer zehaztuko, Herri Kontseiluaren aktan azaltzen den informazioa dagoeneko zaharkitua dagoelako. Berri freskoak ditugunean emango dizuegu honen berri, luze eta zabal.

KANPOSANTUA

Polloeko arduradunak proposatutakoa jaso du Herri Kontseiluak, auzoetako zinegotziaren eskutik. Gai honen gainean sortu zen batzordeak bildu beharko du orain, eta proposamena aztertu beharko du. Koldok mugituko ditu hariak.

ABESBATZA

Ondorengoa erositako prezioan saltzen dizuegu:

Gaizki ulertu batzuek izan direla dirudi, entzundako kexa batzuen arabera. Gogoratu nahi da Herri Kontseilutik, Igeldoko edozein herritar eta elkartek bere ekitaldien edo ensaioen berri emateko orri informatibokoekin harremanetan jar daitezkeela. Ekitaldi baten informazio zuzena ere Herri Kontseilukoak banatu dezakete orri informatiboaren banaketa aprobetxatuz.

Diru laguntzak banatzerakoan Leskarri abesbatza Musikarte barruan dagoen edo ez argitu beharko litzake aurrena.

HERRI BIDEAK

Azken urteotan herri bideak direla-eta ditugun gora beherak behin betiko konpontzeko, Iñaki Ostolazak eskaera egingo du Donostiako udaletxean Igeldoko herri bideak herri jabetza erregistroan sar daitezen. Ondare saileko Emiliak argitu duenez, herri bideak, plenoan onartu eta gero, udaletxeko inbentarioan sartzen dira eta horrek balio legala du. Hau omen da Donostiako Bulebarraren egoera, adibidez.

INFORMAZIA ETA LIGISTIKA

Herri barruan informazioa zabaltzeko Orri Informatiboa daukagu Igeldon, baina kanpora zerbait esan behar denean arazoak aurkitzen dituzte Herri Kontseilukoek. Pentsara zuzentzeak lan estra bat eskatzen dio oharra bidali nahi duenari; egoera hori arintzeko formularen baten bila dabilta. Lan hori hartuko duen arduradun bakar bat jartzea pentsatzen ari dira.

WIMAX sistemaren gainean zerbait esatea gustatuko litzazuke, baina, zoritxarrez, ez genuen bilerara joaterik izan eta, oraingoan, ez digu inork ezer esan nahi izan... Norbaitek informatu nahi bagaitu badaki: idatzi Itsas Aurrera.

Eta, zoritxarrez baita ere, ez dugu jaso ez festen baloraziorik ez Eskola Txikiko Festaren baloraziorik. Hemendik gogorarazi nahi dizuegu, Orri Informatiboa igeldoarrak informatuta egon gaitzen idazten dugu eta zuen parte hartzearekin askoz errazagoa da. Ez duzue lan handirik egin beharrik, hitz gutxi batzuk nahikoa dira festak nolakoak izan ziren ala zer eta nola egin zen azaltzeko. Animatu.

Besterik gabe amaitutzat emango dugu aurtengo 3. Orri Informatiboa. Hurrengoan berri gehiago izango dugu, eta bero-bero hel araziko dizuegu. Bitartean zerbait izanez gero badakizue nora zuzendu: Itsas Aurre Kultur Etxeko buzoira, Orri Informatiborako dela zehaztuta, ala 943 313030ra deituta.

IKASTAROAK 06/07

MATRIKULA

Matrikula egiteko:

Orri hau, Kultur etxeko buzoian utzi edo bulegotik pasa (astearte eta osteguna, 16:00-18:00) edo bulegoko telefonora deitu ordutegi honetan. (943-313030).

Urte osoko ikastaroak

Antzerkia	Egur taila
Aerobika	Abesbatza
Perkusioa	Sabel Dantza

Izena: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

Kontuaren zenbakia(20digitoak): _____

MATRIKULA

Matrikula egiteko:

Orri hau, Kultur etxeko buzoian utzi edo bulegotik pasa (astearte eta osteguna, 16:00-18:00) edo bulegoko telefonora deitu ordutegi honetan. (943-313030).

Urte osoko musika ikastaroak

Haurren antzerkia	Musika tailerra
Panderoa	Pianoa
Trikia	Kitarra
Perkusioa	Txistua
Txalaparta	Dultzaina

Beste zerbaitegin nahiko zenuke?-

Mendizorrotz guraso elkartea

Mendizorrotz guraso elkarteak ingelez ikastaroa antolatu du.

Bi taldeetan antolatuta, lehenengoan 1, 2 eta 3. maila eta bigarrenen 4, 5 eta 6. maila. Talde bakoitzak, astero, ordu beteko bi saio izango dituelarik.

Informazioa 313030 telefonoan.

